# MANCOMUNIDAD DE BORTZIRIAK-CINCO VILLAS PARA LA GESTIÓN DE LOS RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS

# BORTZIRIETAKO HIRI-HODAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA

## ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR RECOGIDA, TRATAMIENTO Y APROVECHAMIENTO O ELIMINACION DE RESIDUOS URBANOS Y DEMAS ACTIVIDADES PRESTADAS EN RELACION CON DICHO SERVICIO

## CAPITULO I

### Fundamentación

Artículo 1.º La presente Ordenanza Fiscal se establece al amparo y de conformidad con las facultades conferidas a las Entidades Locales de Navarra por la Normativa Fiscal aplicable a las mismas.

## CAPITULO II

### Naturaleza de la exacción

Artículo 2.º El objeto de esta Ordenanza es el establecimiento de tasas por la prestación del servicio de recogida, tratamiento, aprovechamiento o eliminación de los residuos urbanos y demás actividades relacionadas con lo anterior.

La naturaleza fiscal de las exacciones que se establecen es, por consiguiente, la de tasas por la prestación de servicios a las que se refiere el artículo 100 de la Ley Foral 2/1995, de las Haciendas Locales de Navarra.

## CAPITULO III

### Ambito de aplicación

Artículo 3.º La presente Ordenanza será de aplicación en todos los términos de los

## ORDENANTZA FISKALA, HIRI HONDAKINEN BILKETA, TRATAMENDUA ETA USTIAPENA EDO DEUSEZTATZEA ETA ZERBITZU HORREK ESKAINTZEN DITUEN GAINERAKO JARDUERAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

## I. KAPITULUA

### Oinarriak

1. artikulua. Nafarroako Toki Erakundeei aplika dakiekeen arautegi fiskalak emandako ahalmenen babesean eta horiekin bat etorriz ezarri da ordenantza fiskal hau.

## II. KAPITULUA

### Ordainarazpenaren izaera

2. artikulua. Ordenantza honen xedea tasak ezartzea da, hiri-hondakinak bildu, tratatu, aprobetxatu edo desegiteko zerbitzua emateagatik eta horrekin zerikusia duten gainerako jarduerengatik.

Beraz, ezarri diren ordainarazpenen izaera fiskala Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluak aipatzen dituen zerbitzuen eta jardueren tasei dagokiena da.

## III. KAPITULUA

### Aplikazio eremua

3. artikulua. Ordenantza hau Mankomunitate hau osatzen duten udalen

municipios integrados en la Mancomunidad.

mugape guztietan aplikatuko da.

CAPITULO IV

Hecho imponible

Artículo 4.º El hecho imponible viene determinado por la disponibilidad y/o uso de los servicios o actividades objeto de la presente Ordenanza que a continuación se enumeran y que dan lugar a las tasas correspondientes:

1. Disponibilidad y/o uso del servicio de la recogida, transporte y posterior valorización o eliminación de residuos urbanos que se derivan de las siguientes situaciones, de acuerdo con la Ley de Residuos y la Ordenanza de gestión de la Mancomunidad:

a) Viviendas.
b) Comercios, servicios y oficinas
c) Bares.
d) Restaurantes.
e) Casas Rurales.
f) Hostales.
g) Ventas Comerciales
h) Industrias y talleres
i)Disponibilidad de contenedor de recogida de RSU.

La relación de actividades descritas en cada tarifa no pretende ser exhaustiva, por lo que en las mismas se incluyen analógicamente actividades similares no incluidas expresamente.

2. Vertidos directos al vertedero.

CAPITULO V

Sujeto pasivo

Artículo 5.º 1. Tendrán la consideración de sujetos pasivos obligados al pago de las tasas establecidas en esta Ordenanza, en calidad de contribuyentes, las personas físicas o jurídicas, así como las herencias

IV. KAPITULUA

Zergagaia

4. artikulua. Ordenantza honen xedeko zerbitzu edo jarduerak eskura izan edo/eta erabiltzeak dakar zergagaia. Zerbitzu-jarduera horiek ondotik aipatzen dira eta dagozkien tasak sortzen dituzte:

1. Hiri-hondakinak bildu, garraiatu eta gero aprobetxatu edo desegiteko nahitaezko zerbitzua eskura izan edo/eta erabiltzea, hondakinei buruzko Legeari eta Mankomunitatearen kudeatzeko ordenantzari jarraituz. Kasuak hauek dira:

a) Etxebizitzak.
c) Merkataritza, zerbitzu eta bulegoak.
d) Ostatuak.
e) Jatetxeak.
f) Landetxeak.
g) Hostalak
h) Merkataritzako saltotiak
i) Lantegiak
j)Hiri hondakinak biltzeko edukiontzia eskura izatea.

Tarifa bakoitzean sartutako jardueren zerrenda ez da zehatza, eta beraz, espreski aipatu gabeko beste jarduera berdintsuak sartzen dira, gisa berekoak badira.

2. Zuzenean zabortegira botatzea.

V. KAPITULUA

Subjektu pasiboa

5. artikulua. 1. Ordenantza hauetan ezartzen diren tasak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasibotzat hartuko dira, zordunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak, heredentzia

yacentes, comunidades de bienes y demás Entidades que, aún careciendo de personalidad jurídica, constituyen una unidad económica o patrimonio separado susceptible de imposición, que por cualquier título habiten, ocupen, disfruten o exploten las viviendas, locales, establecimientos o centros, en cuyo beneficio o provecho se preste o disponga el servicio.

banatugabeak, ondasun komunitateak eta, lege nortasunik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten eta zerga ezar dakiekeen bertzelako erakundeak, baldin eta edozein titulu dela bide, etxebizitzak, egoitzak, saltokiak eta dendak okupatzen, erabiltzen edo ustiatzen badituzte edo bertan bizi badira, haien alde zerbitzua ezarriz gero.

Serán sujetos pasivos sustitutos del contribuyente, a tenor del artículo 104.2 a) de la Ley Foral 2/1995, los propietarios de los inmuebles que consten como tales en el Registro Catastral del ayuntamiento respectivo o en el Registro Fiscal de la Riqueza Urbana de los citados inmuebles.

2/1995 Foru Legearen 104.2a) artikuluaren arabera, zorduna ordezten duten subjektu pasiboak dira udal bakoitzeko Katastro Erregistroan edo eraikin horien Hirilur Aberastasunaren Katastro Erregistroan jabe gisa agertzen direnak.

2. Respecto a los vertidos directos serán sujetos pasivos, obligados al cumplimiento de las prestaciones tributarias, las personas o Entidades peticionarias o los titulares de los residuos.

2. Zabortegiratze zuzenei dagokienez pertsona edo erakunde eskatzaileak eta hondakinen titularrak dira zergak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasiboak.

La deuda derivada del ejercicio de explotaciones o actividades económicas por personas físicas o jurídicas será exigible a quienes les sucedan por cualquier concepto en la titularidad o ejercicio de las mismas.

Pertsona fisiko edo juridikoak ustiategi edo jarduera ekonomikoetan aritzearen ondoriozko zorra, horien titulartasunean edo jardunean edozein kontzepturengatik ondorengo gertatzen direnei exijitzen ahalko zaie.

Una vez agotado el período de pago voluntario, el adquirente y el transmitente responden solidariamente de la deuda existente.

Ordaintzeko borondatezko epea akituta, eroslea eta saltzailea zorren erantzule solidarioak izanen dira.

Quien pretenda adquirir la titularidad de una explotación o actividad económica, previa la conformidad del titular actual, tendrá derecho a solicitar de la Mancomunidad certificación detallada de las deudas tributarias derivadas del ejercicio de la actividad o explotación de que se trate.

Ustiategi edo jarduera ekonomiko baten titulartasuna eskuratu nahi duenak, gaurko titularrak aldez aurreko adostasuna emanda, Mankomunitateari eskatzeko eskubidea izanen du jarduera edo ustiategiaren kasuan kasuko ekitalditik heldu diren tributu-zorren ziurtagiri zehaztua.

CAPITULO VI

VI. KAPITULUA

Base imponible

Zerga oinarria

| | |
|---|---|
| Artículo 6.º 1.- Para los distintos hechos imponibles establecidos en el artículo 4, apartado 1, la base imponible a la que será de aplicación la tarifa será la siguiente: | 6. artikulua. 1.- 4. artikuluko 1. atalean ezarririko zergagaietarako, hauxe izanen da tarifa aplikatuko zaion zerga oinarria, indize zuzentzailea barne: |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-a y 1-e: La unidad catastral habitada o susceptible de serlo. Se considerará habitable, en principio, toda unidad catastral salvo que se certifique por el ayuntamiento su situación de ruina o no disponga de luz o agua. | 4.1-a eta 4.1-e artikuluaren zergagaietarako: jendea bizi den edo bizi litekeen katastroko unitatea. Bizitzeko egokia kontsideratzen da katastroko unitate oro, salbu eta, udalak hondamendi egoera egiaztatzen badu, edo argi edo urik ez badu. |
| En el supuesto de que en una vivienda se desarrollara una actividad sujeta al Impuesto de Actividades Económicas, se aplicará la tasa cuya cuantía sea la más elevada | Etxebizitza batean Jarduera Ekonomikoaren Gaineko Zergapeko jarduera egiten bada, tarifarik altuena aplikatuko zaio. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-b: La unidad y tipo de establecimiento o actividad con alta en el Impuesto de Actividades Económicas (I.A.E.), o en funcionamiento cuando no esté sujeta a este impuesto. Se entenderá por unidad de establecimiento cuando exista unidad catastral. | 4.1-b artikuluaren zergagaitarako: jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta duen edo, zerga honen pean ez dagoenean, arian dagoen jarduera bat ezarri edo burutzeko unitatea. Ezartzeko unitatea dagoela ulertuko da katastroko unitatea dagoenean. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-c: La superficie del establecimiento. | 4.1-c artikuluaren zergagairako: Establezimenduaren azalera |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-d: El número de mesas del establecimiento. | 4.1-d artikuluaren zergagairako: Establezimenduaren mahai kopurua. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-f: El número de habitaciones. | 4.1-f artikuluaren zergagairako: Logelen kopurua. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-g: La unidad de establecimiento: 1, con comedor. 2, con bar y/o alimentación. 3, solamente artículos de regalo. | 4.1-g artikuluaren zergagairako: Establezimendu unitatea: 1, jangelarekin. 2, ostatu edota janariekin. 3, Opariak soilik. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-h: El número de trabajadores. | 4.1-h artikuluaren zergagairako: Langile kopurua. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.1-i: El número de contenedores. | 4.1-i artikuluaren zergagairako: Edukiontzi kopurua. |
| Para el hecho imponible del artículo 4.2: | 4.2 artikuluaren zergagairako: Metro |

La cantidad de metros cúbicos.

kubikoen kopurua.

2.- En el caso de que un mismo establecimiento esté dado de alta en dos o más epígrafes del I.A.E., se entenderá de aplicación aquel cuya tarifa sea la más elevada.

2.- Establezimendu bera J.E.Z.ren epigrafe batean baino gehiagotan altan bada ulertuko da aplikagarria izango dela tarifarik altuena.

CAPITULO VII

VII. KAPITULUA

Tarifas

Tarifak

Artículo 7.º Los tipos y tarifas aplicables a las bases imponibles de las respectivas tasas para el cálculo de la cuota tributaría serán las que en dada ejercicio se establezcan por el órgano competente y figurarán como Anexo a la presente ordenanza formando parte de la misma.

7. artikulua. Tributu-kuota kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean organo eskudunak ezarriko ditu tasa bakoitzaren zerga-oinarriari aplika dakizkiokeen tasa eta tarifak, eta ordenantza honen eranskinean agertuko dira, haren parte izanik.

CAPITULO VIII

VIII. KAPITULUA

Cuota tributaria

Tributu-kuota

Artículo 8.º La cuota tributaría correspondiente a cada tasa será el resultado de aplicar a su base imponible el tipo o la tarifa correspondiente e índice corrector.

8. artikulua. Zerga oinarriari dagokion tasa edo tarifa eta indize zuzentzailea aplikatuta ateratzen den emaitza da tasa bakoitzaren tributu-kuota.

Artículo 9.º Sobre la cuota tributaría resultante se aplicarán los impuestos indirectos que fijen las leyes en cada momento en la forma y condiciones que éstas establezcan.

9. artikulua. Ateratzen den tributu-kuotari une bakoitzean legeek finkaturiko zeharkako zergak aplikatuko zaizkio, haietan ezarritako eran eta balditzetan.

CAPITULO IX

IX. KAPITULUA

Exenciones

Salbuespenak

Artículo 10º. No se admitirán otras exenciones y bonificaciones que las previstas expresamente en la Leyes Forales aprobadas por el Parlamento de Navarra.

10. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentuak onetsitako Foru Legeetan espreski aipatzen direnak dira salbuespen eta hobari bakarrak.

CAPITULO X

X. KAPITULUA

Bonificaciones

Hobariak

Artículo 11º. 1.

Los perceptores de pensiones de cuantía igual o inferior al salario mínimo interprofesional tendrán bonificación del 100% en los siguientes supuestos:

Cuando el obligado al pago sea beneficiario de una prestación de la seguridad social o del Instituto Navarro de Bienestar Social, cuyo importe no supere el Salario Mínimo Interprofesional, o 1,2 veces dicho Salario Mínimo en el caso de tener cónyuge o persona con análoga relación de convivencia, sumando los ingresos totales de ambos.

En los supuestos de tener cargas familiares distintas a la del cónyuge (hijos menores de edad, hijos hasta los 23 años inclusive que se encuentren en situación legal de desempleo o cursando estudios, o hijos discapacitados sin ingresos), a dichos topes económicos se incrementará 0,2 veces del Salario Mínimo por cada persona dependiente.

No podrán acogerse a esta tarifa quienes cumpliendo el requisito anterior obtengan otros ingresos adicionales que en cómputo anual superen el S.M.I., bien sea de quien lo solicite o de las personas que convivan en la misma vivienda. Asimismo el patrimonio mobiliario o inmobiliario del solicitante o de los convivientes no será superior a 21.000 euros excluido el valor de su vivienda habitual.

Para justificar el cumplimiento de los citados requisitos los solicitantes deberán aportar:

1.- Solicitud.

2.- Certificado de la prestación recibida.

3.- Declaración de la Renta o Patrimonio, o certificado del Departamento de Economía y Hacienda de no tener obligación de realizarla, así como otros

11. artikulua. 1.

Lanbide arteko gutxienezko soldata edo zenbateko txikiagoko pentsioa jasotzen dutenek % 100eko hobaria izanen dute kasu hauetan:

Ordaintzailea gizarte segurantzako edo Gizarte Ongizaterako Nafarroako Institutuaren prestazio baten onuraduna denean, zenbatekoa Lanbide arteko Gutxienezko Soldata gainditzen ez duela ezkonkide edo gisa bereko bizikidea duenean 1,2 aldiz Gutxienezko Soldata, bion diru sarrerak baturik gainditzen ez duela.

Ezkonkidea ez den beste edozein familizamarik izanez gero (adin txikiko semealabarik, 23 urte arteko eta adin horretako seme-alabarik ikasketa egiten ari edo legezko langabetu egoeran, edo semealaba ezindurik eta diru sarrerarik gabeak), aipatu diru-muga horiei menpeko lagun bakoitzagatik Gutxieneko Soldataren 0,2 gehituko zaie.

Ezin izanen dute tarifa honetaz baliatu, aurreko baldintza bete izanik ere, urteko kopurua L.G.S. baino handiagoa batzen duten beste diru sarrera gehigarriak jasotzen dituztenek, eskatzailearen eskutik zein etxebizitza berean bizi direnen eskutik. Halaber, eskatzailearen edo bizikideen ondare higigarri zein higiezina ez da 21.000 euro baino handiagoa, ohizko etxebizitzaren balioa kenduta.

Aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzaileek ondokoak ekarri beharko dituzte:

1.- Eskabidea.

2.- Jasotako prestazioaren egiaztagiria.

3.- Errenta edo Ondare Aitorpena, edo horrelakorik egin behar ez izateko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren agiria, hala nola eskatzailearen edo

documentos que justifiquen los ingresos del solicitante o de las personas convivientes.

bizikideen diru sarrerak egiaztatzen dituzten beste agiriak.

4.- Certificado de Convivencia del Padrón Municipal.

4.- Udal Erroldatik eratorritako Elkarbizitze Egiaztagiria.

La Mancomunidad, en cualquier momento, podrá realizar la comprobación de que se mantienen los requisitos exigidos para la concesión de esta tarifa, procediendo a aplicar la tarifa total a aquellos beneficiarios que hayan dejado de cumplir los requisitos, o no aporten los documentos que se hayan requerido para esta comprobación.

Mankomunitateak, edozein unetan, tarifa hau emateko eskatzen diren betebeharrak mantentzen direlako egiaztapena egin ahal izanen du, baldintzok betetzeari utzi edo egiaztapenean eskaturiko agiriak ekartzen ez dituzten onuradun guztiei tarifa osoa aplikatuko dielarik.

2. Procederá una bonificación del 15% en la tarifa resultante cuando la vivienda o local objeto de la tasa se encuentre a una distancia del contenedor de entre 200 y 500 metro. Para generar el derecho a esta bonificación será necesaria la previa solicitud del sujeto pasivo.

2. Ateratzen den tarifan ehuneko 15eko hobaria izanen da baldin eta etxebizitza edo lokaletik edukiontzira 200 eta 500 metro arteko distantzia badago. Hobari honetarako eskubidea izateko, ezinbestekoa izanen da subjektu pasiboak eskaera egitea.

3. Procederá una bonificación del 30% en la tarifa resultante cuando la vivienda o local objeto de la tasa se encuentre a una distancia superior a 500 metro. Para generar el derecho a esta bonificación será necesaria la previa solicitud del sujeto pasivo.

3. Ateratzen den tarifan ehuneko 30eko hobaria izanen da baldin eta etxebizitza edo lokaletik edukiontzira 500 metro baino gehiago badaude. Hobari honetarako eskubidea izateko, ezinbestekoa izanen da subjektu pasiboak eskaera egitea.

4. Las exenciones y/o bonificaciones se solicitarán a la Mancomunidad durante el primer trimestre de cada año, siendo este plazo improrrogable.

4. Salbuespenak eta/edo hobariak urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan eskatu behar zaizkio Mankomunitateari, eta epe hori luzaezina izanen da.

La exención tendrá la vigencia de la prestación correspondiente, teniendo en cuenta los períodos de devengo de la tasa y, en todo caso, no superará el año natural.

Prestazioa zenbat denboraz ematen den, halakoa izanen da salbuespenaren indarraldia, tasaren sortzapen aldiak kontutan harturik, eta, betiere, ez da urtebetekoa baino luzeagoa izanen.

La bonificación tendrá vigencia de un año natural.

Hobariak urte natural bateko indarraldia izanen du.

## CAPITULO XI

## XI. KAPITULUA

### Devengo

### Sortzapena

Artículo 12º. 1.- Las tasas establecidas en el artículo 4.1 se devengarán el día primero de cada semestre natural, siendo las cuotas irreducibles o no prorrateables.

12. artikulua. 1.- 4.1. artikuluan ezarritako tasak seihileko natural bakoitzaren lehen egunean sortuko dira, eta kuotak murriztezin eta hainbanaezinak izanen dira.

2.- Las tasas establecidas para los vertidos directos se devengarán en el momento en que se solicite por parte del interesado la prestación del servicio.

2.- Zabortegiratze zuzenetarako ezarritako tasak, interesatuak zerbitzua emateko eskatzen duen unean sortuko dira.

CAPITULO XII

Exacción

XII. KAPITULUA

Ordainarazpena

Artículo 13º. Las tasas reguladas en la presente Ordenanza se exaccionarán de acuerdo con las normas siguientes:

1) Las previstas en el artículo 4.1) de forma semestral.
2) Las correspondientes a los vertidos directos en el momento de su devengo.

13. artikulua. Ordenantza honek arautzen dituen tasak arau hauei jarraikiz ordainaraziko dira:

1. 4.1. artikuluan aurreikusitako tasak seihilekoan behin.
2. Sortzen diren unean ordainaraziko dira zabortegiratze zuzeneko tasak.

CAPITULO XIII

Recaudación

XIII. KAPITULUA

Dirubilketa

Artículo 14º. 1. De acuerdo con lo previsto en el artículo 86 de la Ley Foral 2/1995, de las Haciendas Locales de Navarra, las deudas tributarías resultantes por aplicación de las tasas previstas en el artículo 4.1 se consideran "sin notificación".

14. artikulua. 1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 86. artikuluan zehaztuarekin bat, 4.1. artikuluan ezarritako tasak aplikatzetik sortzen diren tributu-zorrak "jakinarazpen gabekotzat" hartuko dira.

2. Las deudas tributarías generadas por las tasas previstas en el artículo 4.1 una vez exaccionadas de conformidad con lo previsto en el artículo 13, se entenderán tácitamente notificadas el día primero del primer mes del semestre natural en que deban hacerse efectivo.

2. 4.1 artikuluan ezarritako tasek sortzen dituzten tributu-zorrak, 13. artikuluaren arabera ordainarazi eta gero, ordaindu behar diren seihileko naturalaren lehen hilabetearen lehen egunean isilbidez jakinarazitzat hartuko dira.

El periodo voluntario de un mes comenzará a contarse desde la fecha de su publicación en el tablón de anuncios de la Mancomunidad.

Mankomunitatearen iragarki oholean argitaratzen diren egunetik aitzina hasiko da kontatzen hilabeteko borondatezko aldia.

3. Las tasas previstas para los diferentes servicios de carácter voluntario, se harán efectivas en el momento de la solicitud de realización de la actividad o prestación del servicio.

3. Borondatezko zerbitzuetarako ezarritako tasak, jarduera edo zerbitzuaren eskaera egiten den momentuan ordainduko dira.

Artículo 15º. Las deudas tributarías no satisfechas en periodo voluntario conforme a lo previsto en el artículo 14, deberán satisfacerse según lo establecido en, el artículo 84 de la Ley Foral 2/1995, de las Haciendas Locales de Navarra.

15. artikulua. 14. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz borondatezko epean ordaintzen ez diren tributu-zorrak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 84. artikuluan ezarri bezala ordaindu beharko dira.

La Mancomunidad podrá aplazar o fraccionar el pago de las deudas conforme a lo dispuesto en los artículos 90 y siguientes de la Ley Foral 2/1995.

Mankomunitateak zorraren atzerapena edo zatikako ordainketa onar dezake 2/1995 Foru Legearen 90. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Artículo 16º. El pago de las deudas tributarías podrá realizarse en la forma siguiente:

16. artikulua. Tributu-zorrak honela ordain daitezke:

a) Para los sujetos pasivos que hayan domiciliado pagos, mediante cargo en la cuenta y entidad bancaria o de ahorros que hayan señalado al efecto.

a) Ordainketak helbideratu dituzten subjektu pasiboek, horretarako adierazitako banku edo aurrezki kutxako kontuan kargatuz.

b) Para los sujetos pasivos que no hayan domiciliado pagos, en las oficinas bancarias o de ahorros que se habiliten por la Mancomunidad para el cobro.

b) Ordainketak helbideratu ez dituzten subjektu pasiboek Mankomunitateak kobrantzarako bereziki ezartzen dituen banku edo aurrezki bulegoetan

CAPITULO XIV

XIV. KAPITULUA

Infracciones y sanciones

Arau-hausteak eta zehapenak

Artículo 17º. Serán de aplicación las disposiciones sobre infracciones y sanciones establecidas en la Ley Foral 2/1995, de las Haciendas Locales de Navarra.

17. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen arau hausteei eta zehapenei buruz xedatuak aplikatuko dira.

DISPOSICION ADICIONAL

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Única. Las tasas derivadas de la presente Ordenanza se liquidarán, gestionarán, inspeccionarán y recaudarán directamente por la Mancomunidad de Bortziriak-Cinco Villas.

Ordenantza honetatik sortutako tasak Bortzirietako Mankomunitateak likidatu, kudeatu, ikuskatu eta bilduko ditu zuzenean.

DISPOSICION DEROGATORIA

Única. Quedan derogadas todas las normas actualmente establecidas de igual o inferior rango en cuanto incurran en oposición, contradicción o incompatibilidad con las disposiciones de esta Ordenanza.

DISPOSICION FINAL

Única. La presente Ordenanza entrará en vigor el día 1 de enero de 2007.

ANEXO I

Aquellas actividades que se ejerzan, "de temporada" inferior a seis meses, devengarán una sola cuota semestral en la tarifa que corresponda a la actividad realizada.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Orain arte ezarritako arau guztiak indarrik gabe geratzen dira, baldin eta, maila bera edo ttikiagoa izanik, ordenantza honetako xedapenei aurka egiten badiete, haiekin bat ez badatoz edo bateraezinak badira.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Ordenantza honek 2007ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

Sei hilabetetik beherako "denboraldiaz" egiten diren jarduerek seihileko kuota bakar bat sortuko dute jarduerari dagokion tarifan.

| **ERABILTZAILEEN ETA TASEN MAILAK** 2007 | **CATEGORIAS DE USUARIOS Y TASAS** 2007 | **EUROAK** **EUROS** |
|---|---|---|
| Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era Iraunkorrean bizi ala ez | *Todas las viviendas censadas, habitadas o no de forma permanente* | 69,10 |
| Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak | *Caseríos a una distancia del contenedor entre más de 200 y 500 metros* | 58,80 |
| Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak | *Caseríos a una distancia del contenedor de más de 500 metros* | 48,40 |
| | | |
| 1-Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sektoretakoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegiak, okindegiak, ileapaindegiak, lan bulegoak | *Comercio-1 y servicios. Establecimientos comerciales no dedicados a la alimentación ni al sector electrodoméstico: Mercerías, droguerías, ferreterías, panaderías, peluquerías, oficinas y despachos profesionales* | 69,10 |
| 2-Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegiak, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak | *Comercio-2. Establecimientos dedicados a la alimentación (carnicerías, pescaderías, ultramarinos), tiendas de electrodomésticos y farmacias.* | 135,60 |
| 3-Merkataritza: Autozerbitzuak | *Comercio-3. Autoservicios.* | 206,90 |
| | | |
| 1-Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m2ko edo gutxiagoko azalera dutenak | *Bar-1. Sociedades y bares de apertura esporádica y otros permanentemente abiertos con superficie igual o inferior a 30 m2.* | 137,80 |
| 2-Ostatua. 30 m2 baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak | *Bar-2. Bares con superficie superior a 30 m2 y bares que incluyen tienda de alimentación.* | 276,00 |
| 3-Ostatua. Pub eta diskotekak | *Bar-3. Pub y discotecas.* | 344,80 |
| | | |
| 1-Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta bortz mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak | *Restaurante-1. Sociedades gastronómicas abiertas permanentemente y restaurantes con un número de mesas igual o inferior a cinco.* | 344,80 |
| 2-Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak | *Restaurante-2. Número de mesas superior a cinco.* | 620,70 |

| | | |
|---|---|---|
| | | |
| Landetxeak | *Casas Rurales.* | 138,30 |
| Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak | *Casas Rurales a una distancia del contenedor entre más de 200 y 500 metros.* | 117,60 |
| Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak | *Casas Rurales a una distancia del contenedor de más de 500 metros.* | 96,80 |
| | | |
| 1-Hostala. Hamar logela edo gutxiagokoak | *Hostal-1. Número de habitaciones igual o inferior a diez.* | 482,50 |
| 2-Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak | *Hostal-2. Número de habitaciones superior a diez.* | 689,40 |
| | | |
| Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko | *Ventas comerciales de artículos de regalo.* | 344,30 |
| Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak | *Ventas comerciales con alimentación y/o bar.* | 689,40 |
| Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak | *Ventas comerciales con restaurante.* | 1.034,20 |
| | | |
| Lantegiak, lau langile bitarte | *Industrias y talleres hasta 4 operarios* | 69,10 |
| Lantegiak, 5-10 langile bitarte | *Industrias y talleres 5-10 operarios* | 137,80 |
| Lantegiak, 11-30 langile bitarte | *Industrias y talleres 11-30 operarios.* | 344,80 |
| Lantegiak, 31-60 langile bitarte | *Industrias y talleres 31-60 operarios.* | 689,40 |
| Lantegiak, 60-150 langile bitarte | *Industrias y talleres 60-150 operarios.* | 1.034,20 |
| Lantegiak, 150-300 langile bitarte | *Industrias y talleres 150-300 operarios.* | 1.959,60 |
| Lantegiak, 300 langile baino gehiagorekin | *Industrias y talleres con más de 300 operarios.* | 2.888,40 |
| | | |
| Zuzenean zabortegira botatzea; metro kubikoko | *Vertidos directos al vertedero: el metro cúbico.* | 29,80 |
| | | |
| Neumatikoak zabortegian uztea; kilo bakoitzeko | Neumáticos depositados en el vertedero; por kg. | 0,30 |
| | | |
| Norberaren erabilerarako edukiontzia | Contenedor exclusivo | 670,00 |